

69/2008 FORU DEKRETUA ALDATZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA
PRESTATU AURREKO KONTSULTAREN FASEA. 69/2008 FORU
DEKRETUAREN BIDEZ GIZARTE ZERBITZU OROKORREN ZORROA ONETSI
ZEN.

133. artikulua. *Herritarren parte-hartzea lege mailako arauak eta erregelamenduak prestatzeko prozeduran.*

1. Lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handiena duten erakundeek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin zer arazo konpondu nahi diren.
- b) Araua onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Hori onetsi ezean, zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan (hemendik aurrera, Zorroa) araututako zerbitzuak eguneratu nahi dira, eta, bereziki, argitu eta harmonizatu nahi dira laguntzaile pertsonala izateko eta mendekotasuna dutenak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko prestazio ekonomikoak, aipatutako zorroan arautu baitira, hain zuzen ere 39/2006 Legean (Mendekotasunaren Legea) eta hura garatzeko arauetan xedatutakoarekin (abenduarien 14ko 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

Zorroko prestazio horien gaur egungo arauketak bere baitan ditu zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak, gehienetan mendekotasun graduren bat aitorturik dutenentzat, kontuan hartu gabe Mendekotasunaren Legea aplikatzeko egutegia, 2015eko uztailaren 1etik aurrera aplikatzekoa baita mendekotasun gradu eta maila guztietan.

Laguntzaile pertsonala izateko laguntza ekonomikoei dagokienez, Zorroak bakar-bakarrik aitortzen ditu III. mendekotasun gradua (mendekotasun handia) aitorturik dutenentzat, eta hartan ez da arautu ez aitortu II. eta I. graduetarako (mendekotasun larria eta moderatuak). Otsailaren 27ko

196/2013 Foru Aginduaren bidez aitortu zitzairen prestazioa mendekotasun gradu horiek dituztenei. Horren bidez, mendekotasuna dutenek laguntzaile pertsonala izateko diru-laguntzak arautu ziren. Antzeko zerbait esan daiteke mendekotasuna dutenak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoen arauketari buruz ere, zeren ez Zorroan araututako modalitateak ez hartan ezarritako zenbatekoak ez datoz bat une honetan aplikatzekoa den araudiarekin (Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 19/2011 Foru Legea eta urtarrilaren 18ko 62/2013 Foru Agindua).

b) Araua onestea beharrezko eta egoki den.

Zorroko prestazio horien arauketan araudi-desfasea dagoenez, beharrezkoa eta egokia da eguneratzea eta arauketa berria egitea.

c) Arauaren helburuak.

Arauak funtsezko bi helburu ditu:

- prestazio ekonomikoen arauketa argitzea, harmonizatzea eta integratzea laguntzaile pertsonala izateko eta mendekotasuna dutenak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko, eta Zorroko zerbitzuak eguneratzea.

- Oinarri normatibo bat ezartzea, gero laguntza eta prestazioen erregelamenduzko garapena egiteko, helburu hau izanik: modu osagarrian, mendekotasunaren sistemako gainerako prestazioekin batera, prestazio eta laguntza hauek oinarri izan daitezela mendekotasun-egoeran daudenek arreta egokia izateko eta autonomia pertsonala sustatzeko, edozein gradutakoak izanik ere, batzuetan prestazio ekonomikoa emanez familiaren baitako zainketetarako, eta, beste batzuetan, prestazio ekonomikoa emanez zaintzaile profesionalak kontratatzeko, laguntza pertsonala eman dezaten, erraztu dadin hezkuntza jasotzea eta lanean aritzea eta bizimodu autonomoagoa izatea eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egitean.

d) Hori onetsi ezean, zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).

Ez da aurreikusten beste konponbiderik (araurik edo arau ez denik).